













begirada

75

otsaila
2020



ikus
pegi

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración



ATZERRITAR BIZTANLERIA ETA EUSKAL LAN-MERKATUA

Begirada honen bidez, atzerritarrek euskal lan-merkatuan duten egoera aztertuko dugu. Horretarako, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ematen dituen datuak erabiliko ditugu, bai eta Biztanleria Aktiboaren Inkestaren (BAI) emaitzak ere, nazionalitate atzerritarra duten biztanleei buruzkoak. Asmoa da bizileku-baimenei eta Gizarte Segurantzako afiliazioei buruzko zenbait datu ematea. Biztanle horiek erregularizatuta daudela eta jarduera-tasa altuak dituztela adierazten dute datu horiek, eta biztanleria osoaren batez bestekotik gora daudela.

an, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioak 2018an argitaratutako azken datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 61.144 atzerritar zeuden Gizarte Segurantzaren afiliatuta urte horretan (1. taula), hau da, 2001ean alta emandakoak baino gehiago (11.826). Hori kontuan hartuta, ikus dezakegu Gizarte Segurantzaren alta emandako atzerritarren kopuruak gora egin zuela ongialdi ekonomikoko urteetan, 2011ra arte, hau da, krisia agertu zen urtera arte. Urte horretatik aurrera, kopuruak behera egin zuen pixkanaka 2015era arte, eta urte horretan, berriz ere, Gizarte Segurantzaren alta emandako atzerritarren kopuruak gora egin zuen. Azken gorakada horretan, adierazle ekonomikoak pixka bat hobetu ziren, eta krisitik irten ginenik ezin esan daitekeen arren, nolabaiteko susperraldia gertatu zen, gaur egunera arte mantendu dena.

1. grafikoan, bizileku-baimena zuten erroldatutako atzerritarren arteko alderaketa egiten da, bilakaera aztertze aldera, eta horrek erregularitasun-tasa ideala zein izan daitekeen adierazten digu. Ikus daitekeen moduan, gora egin zuen gobernuko bultzatutako ezohiko erregularizazio-prozesua egin zen garaian, eta gorakada handia izan zen 2006an (% 67,1). Krisi ekonomikoko uneetan, erregularizazio-tasa handitu egin zen. Izan ere, Euskadira iritsitakoen kopurua moteldu egin zen, eta, aldi berean, lurraldean jada bizi zirenak beren egoera erregularizatzen ari ziren. Aldi berean, krisi ekonomikoaren ondorioz, enplegua suntsitu egin zen, eta Gizarte Segurantzaren alta emandakoen kopuruak behera egin zuen. Hala, afiliatutako pertsonak % 32,4 ziren 2013an. Gero, susperraldi ekonomikoarekin batera, afiliazioek gora egin zuten, eta % 40,4 izatera iritsi ziren 2018an.

Euskadi helmuga zuten migrazio-fluxuak areagotu eta suspertu egin zituen susperraldi ekonomikoak. Migrazio berri horrek, hortaz, erregularizazio-tasaren beherakada txiki bat ekarri zuen berekin.


1. taula

Bizileku-baimenen eta Gizarte Segurantzako afiliazioen bilakaera EAEan, 2001-2018

	Bizileku-baimena	Afiliazioak
2001	18.822	11.826
2002	19.515	15.615
2003	24.201	19.409
2004	28.600	22.399
2005	37.150	35.747
2006	57.395	39.347
2007	64.228	46.992
2008	83.875	49.538
2009	96.635	50.404
2010	106.658	51.497
2011	110.063	52.468
2012	119.984	51.274
2013	123.484	48.210
2014	122.994	46.916
2015	122.076	49.000
2016	124.064	51.871
2017	125.480	55.312
2018	130.829	61.144

1. grafiko

Erregularizazio-tasaren eta Gizarte Segurantzako afiliazioen bilakaera EAEan, 2001-2018




Iturria: Geuk egina, EINren eta LMGSMin datuak oinarri hartuta.

Iturria: geuk egina, LMGSMin datuak oinarri hartuta.

EINek egindako Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak erreferentziatzat hartuta (2. taula), 2019ko laugarren hiruhilekoan Euskadiko biztanleria aktiboa —landunak gehi langabeak— 1.026.600 pertsonatik gorakoa zela ikus dezakegu. Horietatik 76.900ek atzerriko nazionalitatea zuten. Atzeritar biztanleria landunaren kasuan, datu hori 55.300 pertsonara jaisten da.

Langabeziari dagokionean, atzeritarren langabezia-tasa % 28,1koa zen. Beste ikuspegi batetik begiratuta, atzeritarren langabezia-tasa haien pisua baino nabarmen handiagoa da 16 urtetik gorako biztanleen artean (% 7,3).

Atzeritarren lan-egoerari dagokionean, 2. grafikoan ikus dezakegu atzeritarren jarduera-tasa % 69,8koa zela 2019ko laugarren hiruhilekoan —landunak gehi langabeak—, hau da, biztanleria osoaren tasaren gainetik zegoela. Era berean, atzeritarren enplegu-tasa (% 50,2) batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa zen, eta langabezia-tasa (% 28,1) biztanleria osoarena baino nabarmen handiagoa zen. Nabarmentzekoa da, sexuaren arabera, gizonen jarduera-tasa handiagoa zela (% 77,8) eta emakumeen langabezia-tasa handiagoa zela (% 29,7).



2. taula


Biztanleria osoa, espainiarra eta atzeritarra, lan-egoeraren arabera EAEn, 2019ko 4. hiruhilekoa

	Biztanleria osoa	Espainiar biztanleria	Atzeritar biztanleria
Biztanleria aktiboa	1.026.600	949.700	76.900
Biztanleria landuna	933.300	878.000	55.300
Biztanleria langabea (%)	9,1	7,6	28,1
16 urtetik gorako biztanleak	1.881.968	1.745.497	136.471
16 urtetik gorako biztanleak (%)	100,0	92,7	7,3

Iturria: geuk egina, biztanleria aktiboari buruzko inkestaren datuak eta EINren errolda oinarri hartuta.

2. grafikoa

Biztanleria osoa, espainiarra eta atzeritarra, lan-egoeraren arabera (%), 2019ko 4. hiruhilekoa




Iturria: geuk egina, EINren datuak oinarri hartuta.

Alta emandako gizonen ehunekoak gora egin du azken urteotan, eta alta guztien % 55,2 dira.

Gizarte Segurantzako altek sexuaren arabera izan duten bilakaerari dagokionez (3. grafikoa), gizonetzko gehiago egoteko joera izan zen krisi ekonomikora arte, baina krisiak sexuen arteko oreka handiagoa ekarri zuen. Hala, 2001. eta 2009. urteen artean, Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonen proportzioa handiagoa izan zen: % 60tik gorako ehunekoak. Proportzio hori orekatuz joan da gero, eta 2013. eta 2015. urteen artean % 50ean banatuta egon zen, gutxi gorabehera. Lan-merkatuaren osaerari eragin dion krisi ekonomikoa izan zen, eta, krisi horren ondorioz, emakumeak biztanleria ez-aktiboaren taldetik irten eta biztanleria aktiboaren taldean sartu ziren, bai enplegua modu aktiboan bilatzeko, bai lan-merkatuan txertatzeko. Orintsuago, alta emandako gizonen ehunekoak gora egin du berriz ere, eta Euskadiko Gizarte Segurantzaren atzerriko biztanleen alta guztien % 55,2 izan ziren 2018an.

3. grafikoa

Gizarte Segurantzaren alta emandako atzerritarren banaketaren bilakaera, sexuaren arabera, 2001-2018



Iturria: geuk egina, LMGSMin datuak oinarri hartuta.

Nazionalitateen arabera (3. taula), 2019ko azaroan, Errumania eta Maroko ziren Gizarte Segurantzaren alta emandako atzerriko pertsonen nazionalitate nagusiak Euskadin. Izan ere, alta emandako atzeritar guztien % 14,5 eta % 9,5 ziren, hurrenez hurren. Bilakaerari dagokionean, Maroko nabarmendu behar da. Hazkunde jarraitua izan du, baita atzeraldi ekonomikoko urteetan ere. Maroko bosgarren nazionalitatea izan zen 2010ean (guztizkoaren % 6,9). Bi nazionalitate nagusi horiez gain, Nikaraguak izan duen hazkunde azkarra ere nabarmentzekoa da. 2015ean zortzigarren nazionalitatea zen, eta nazionalitate nagusien hirugarren lekua izatera igaro zen 2019an.

2019ko azaroan, Errumania eta Maroko dira Gizarte Segurantzaren alta emandako atzerriko pertsonen nazionalitate nagusiak.

3. taula

Gizarte Segurantzaren afiliatutako nazionalitate nagusien bilakaera EAEen, 2001-2019

2001		2005	
Europar Batasuna	40,2	Europar Batasuna	24,6
Maroko	10,4	Kolonbia	14,4
Kolonbia	6,5	Ekuador	11,9
Ekuador	6,2	Maroko	7,8
Txina	4,8	Errumania	5,8
Kuba	2,6	Bolivia	4,0
Brasil	2,1	Txina	3,8
Aljeria	2,0	Argentina	2,7
Peru	1,8	Peru	2,5
Errumania	1,6	Brasil	2,0
Gainerako herrialdeak	21,5	Gainerako herrialdeak	20,5

Iturria: LMGSMen urtekaria

2010ko azaroa		2015eko azaroa		2019ko azaroa	
Errumania	11,3	Errumania	14,7	Errumania	14,5
Portugal	10,5	Maroko	7,4	Maroko	9,5
Kolonbia	10,3	Bolivia	7,1	Nikaragua	5,9
Bolivia	8,3	Portugal	6,8	Portugal	5,8
Maroko	6,9	Txina	5,5	Kolonbia	5,5
Ekuador	6,3	Kolonbia	5,1	Txina	4,4
Peru	3,7	Paraguai	4,8	Bolivia	4,2
Frantzia	2,8	Nikaragua	4,7	Paraguai	4,0
Txina	2,6	Pakistan	2,7	Pakistan	3,1
Brasil	2,4	Frantzia	2,6	Venezuela	2,9
Gainerako herrialdeak	33,1	Gainerako herrialdeak	38,6	Gainerako herrialdeak	40,3


Iturria: LMGSMen hileko txostenak

Jarduera ekonomikoari dagokionean (4. grafikoa), Gizarte Segurantzari afiliatutako biztanle atzeritar gehienak ostalaritzan (% 17,0) eta etxeko lanen sektorean (% 16,0) enplegatuta zeuden 2019ko azaroan Euskadin. Jarduera horien atzetik, baina ehunekoetan garrantzi handia hartuta, merkataritza eta motordun ibilgailuen konponketako lanak (% 12,9), eraikuntzakoak (% 12,1) eta manufaktura-industriakoak (% 9,8) ageri dira.

Nazionalitate-eremua zein den kontuan hartuta, 2019ko azaroko datuetan aldeak ikus daitezke. Hala, Europar Batasuneko herrialdeetako nazionalitatea ez den beste bat duten biztanleen jarduera ekonomiko nagusiak dira ostalaritza (% 19,5), etxeko lanen sektorea (% 19,5) eta merkataritza eta ibilgailuen konponketa (% 14,7). Aldiz, EBeko herrialdeetako nazionalitatea duten biztanleak, batez ere, eraikuntzan (% 19,7), manufaktura-industrian (% 12,2) eta ostalaritzan (% 11,5) lan egiten dute.

4. grafikoa


Gizarte Segurantzari alta emanda dauden atzerritarrak, jarduera ekonomikoaren eta nazionalitate-eremuaren arabera (%), 2019ko azaroa



Iturria: geuk egina, LMGSMin datuak oinarri hartuta.

5. grafikoa

Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden atzerritarrak, nazionalitate nagusien eta araubideen arabera, 2019ko azaroa



Iturria: geuk egina, LMGSMen datuak oinarri hartuta.

4. taula

Atzerriko biztanle guztiei egindako kontratuen bilakaera, lurralde historikoen arabera eta EAEn, 2008-2018¹

	2008	2010	2012	2014	2016	2018
EAEko kontratu guztiak	822.932	710.042	673.529	759.149	926.599	1.001.181
Atzeritarrei egindako kontratuak EAEn	107.248	88.284	90.665	75.986	93.887	126.658
Araba	31.083	25.920	25.549	24.242	29.635	38.560
Bizkaia	43.279	37.073	40.427	30.162	35.663	49.014
Gipuzkoa	32.886	25.291	24.689	21.582	28.589	39.084
Atzeritarrei egindako kontratuak, kontratu guztiak kontuan hartuta (%)	13,0	12,4	13,5	10,0	10,1	12,7

Iturria: geuk egina, LMGSMen datuak oinarri hartuta.

Araubideen arabera (5. grafikoa), EAEn bizi diren atzeritar gehienak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean alta emanda daude (% 82,9). Beste % 16,6k beren kontura lan egiten dute, eta, hortaz, Langile Autonomoen Araubide Berezian sartuta daude; eta ia % 0,4 daude Itsasoko Langileen Araubide Berezian. Kasu horretan ez da ageri meatzaritzaren eta ikatzaren araubide berezia, ez baitago Euskadin araubide horretan afiliatutako atzeritarrik.

Nazionalitate nagusien arabera, Nikaraguak ditu langile-tasarik handienak Araubide Orokorrean. Nazionalitate horretako ia biztanle guztiak araubide horretan alta emanda daude (% 97,0). Horren arrazoi nagusia da jatorri horretako biztanleak etxeko eta zaintza-lanetako zerbitzuan egiten dutela lan gehienbat, eta zerbitzu hori Araubide Orokorrean sartuta dagoela. Bestalde, Txinako nazionalitatea duten biztanleen kasua ere aipagarria da. Biztanle horien erdiak baino gehiagok (% 59,1) norberaren konturako langile gisa daude alta emanda Gizarte Segurantzaren.

Erkidegoan bizi diren atzeritarrei egindako kontratuen kopuruari erreparatzen badiogu (4. taula), azken hamar urteetan gorabeherak izan direla ikus dezakegu. Krisialdi ekonomikoa beranduago iritsi zen Euskadira, baina atzeritarrei egindako kontratuen kopuruak nabarmen behera egitea eragin zuen; hala, 107.248 kontratu egin zitzaizkien 2008an, eta 75.986 2014an. Hau da, % 29,1eko jaitsiera izan lau urteko epean.

Adierazle ekonomikoen hobekuntzak kontratuen kopurua handitzea ekarri zuen 2016. urtetik aurrera. Hala ere, urtean zehar sinatzen diren kontratu guztiak kontuan hartuta, eta atzeritarrei egindako kontratuen portzentajeazko pisuari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu 2018. urtera arte ehuneko hori ez zela handitu eta krisi aurreko balioetan kokatzen hasi. Hala, horrek adierazten digu atzerriko biztanleriak atzeraldiaren eta enplegu-suntsiketaren ondorioak jasan dituela oso oraintsu arte.


¹ Horri buruz argitaratutako lehenengo datuak 2007. urtekoak dira, baina alderaketa 2008an hasia erabaki da bi urteko alderaketa egin ahal izateko eta argitaratutako azken datuekin amaitu ahal izateko (hau da, 2018koekin).

Zerbitzuen sektorea da nagusia, 2018an sinatutako kontratu guztien % 69,7arekin.

Kontratu horiek sinatu diren sektoreei dagokienean (6. grafikoa), zerbitzuen sektorea izan da eta da sektore nagusia, eta, batez beste, 2008 eta 2018 artean sinatutako kontratu guztien % 65 baino gehiago sektore horretan egin ziren. Beste sektore batzuei dagokienean, eraikuntzako bigarren postuan zegoen 2008an, kontratu guztien % 20arekin ia. Krisi ekonomikoarekin, ordea, indarra poliki-poliki galtzen joan zen. Nekazaritza-sektoreko kontratuen kopuruak gora egin zuen (kontratu guztien % 16,2 sektore horretan egin ziren 2014an), baina harez geroztik sinatutako kontratuen kopuruak behera egin du. Bestalde, industria-sektoreak 2014tik aurrera izandako hazkunde bizkorra ere nabarmentzekoa da. Gaur egun bigarren sektorea da kontratuen kopuruari dagokionean. Izan ere, sinatutako kontratu guztien % 13,9 sektore horretan egin dira.

6. grafikoa

EAEn bizi diren atzeritarrei egindako kontratuen bilakaera, sektorearen arabera, 2008-2018



Iturria: geuk egina, LMGSMen datuak oinarri hartuta.

5. taula

Langabeen kopuruaren bilakaera, EAEn bizi diren biztanleen eta atzerritarren arabera, 2005-2018

	Langabeak EAEn, guztira	Langabe atzerritarrek EAEn	Urte arteko aldakuntza (%)	Langabe atzerritarrek, langabe guztiak oinarri hartuta (%)
2005	84.808	3.263	-	3,8
2006	80.793	3.925	20,3	4,9
2007	75.629	4.344	10,7	5,7
2008	84.582	6.752	55,4	8,0
2009	120.454	12.216	80,9%	10,1
2010	132.358	15.393	26,0%	11,6
2011	145.145	19.448	26,3%	13,4
2012	162.359	22.326	14,8%	13,8
2013	175.415	23.381	4,7%	13,3
2014	171.708	24.009	2,7%	14,0
2015	160.155	23.812	-0,8%	14,9
2016	146.003	22.756	-4,4%	15,6
2017	133.416	21.081	-7,4%	15,8
2018	123.517	19.544	-7,3%	15,8

Iturria: geuk egina, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren datuak oinarri hartuta.

5. taulak biztanle guztien eta atzerritarren langabezia-tasen azken hamahiru urteetako bilakaera erakusten du. Hori horrela, ikus dezakegu langabe atzerritarren kopuruak nabarmen egin zuela behera 2009. urtetik aurrera, atzeraldi ekonomikoaren ondorioz, eta kopururik handiena 2014koa izan zela: 24.009 atzerritar langabe. 2015ean, kopuru hori txikitzen hasi zen. Jaitsiera hori txikia izan zen hasieran (% 0,8koa 2014. urtearekin alderatuta), baina nabarmenagoa egin zen duela gutxi. Izan ere, 1.537 atzerritar gutxiago baitaude langabezian 2018. urtean, aurreko urtearekin alderatuta. Hala ere, atzerritarren artean langabeziak behera egin badu ere, atzerritar langabeen ehunekoak bere horretan jarraitzen du azken urteotan, eta horrek adierazten digu langabezian dauden atzerritarrek ez direla Espainiako nazionalitatea duten biztanleen erritmo berean sartzen ari lan-merkatuan.

ONDORIOAK

- EAEn bizi eta lan egiteko adinean dauden atzerritar gehienak lanean edo lan bila ari dira. Hala ere, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen langabezia-tasa % 28,1ekoa da, Espainiako nazionalitatea duten biztanleen langabezia-tasa (% 7,6) baino nabarmen handiagoa.
- 2018an, 61.144 atzerritar zeuden Gizarte Segurantzaren alta emanda. Aurreko urteekin alderatuta, igoera handia izan dela esan nahi du horrek, eta bereziki 2012-2014 aldiarekin alderatuta; aldi horretan, krisi ekonomikoaren ondorioz, enplegua suntsitu zen.
- Errumania eta Maroko dira Gizarte Segurantzaren alta emandako pertsonen nazionalitate nagusiak Euskadin. Sexuaren arabera, oreka erlatiboa dagoela ikus daiteke, nahiz eta gizonak gehixeago izan (% 55,2).
- Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden atzerritar gehienak Langileen Araubide Orokorrean daude, eta, ondoren, Besteren Konturako Langileen Araubidean. Txinako populazioaren kasua nabarmentzekoa da; kasu horretan, dinamika kontrakoa da, eta gehienak norberaren konturako langileak dira.
- Krisi ekonomikoaren ondorioz, langabe atzerritarren kopuruak gora egin zuen, eta sinatutako kontratuen kopuruak, berriz, behera. Gero, egoerak hobera egin zuen, baina atzerritarrek krisiaren ondorioak jasaten jarraitzen dutela ikus dezakegu.